



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea



KAZETARITZA
IKASTURTEA 2016-2017

MEMORIA

**GERNIKAKO BONBARDAKETAREN 80. URTEURRENA
ZER ERAGIN IZAN DU KULTURAN?**

Kultur gehigarria

**EGILEA: AINHOA IGLESIA OLABARRI
ZUZENDARIA: IÑAKI LAZKANO ARRILLAGA**

Data, 2017eko maiatzaren 30a

AURKIBIDEA

Sarrera	2. orr
Garapena	4. orr
Ondorioak	9. orr
Bibliografia	11. orr
Eranskinak	15. orr

SARRERA

Iazko urria heldu eta Gradu Amaierako Lanerako gaia hautatzeko unea iritsi zenean, oraindik imajinaezina zen niretzat aurrean zabalduko zitzaidan unibertsoa. Kultur gehigarria aukeratu nuen. Alde batetik, argi neukan sormenezko proiektu bat egin nahi nuela, aukerarik egokiena zela graduari bukaera emateko: lau urteetan zehar eskuratutako gaitasunak eta garatutako sormena praktikan jartzeko. Bestalde, kultur gehigarriaren ideiak konbentzitu ninduen, ildo bereko eduki desberdinak jorratzeko aukera emango zidalako, bai eta kazetaritza genero desberdinak uztartzeko ere.

Kultur gehigarri orokorra egitea bururatu zitzaidan lehenengo momentuan, askotariko edukiak jorratuko zituen. Baina berehala baztertu nuen ideia hau. Izan ere, hainbat hilabetetan zehar lantzen den produktua izateak gaurkotasuneko gaiak jorratzeko aukerak asko murrizten ditu. Ez zuen zentzu handirik, ekainean aurkeztu orduko, edukiak jada zaharkituta egongo lirakeelako. Horregatik lana gai batean ardatzea otu zitzaidan, gai oso zehatz batek aukera handiagoak emango zizkidalakoan. Eta hainbat gai pentsatu eta baztertu ostean, Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrenaren albisteak irakurri nuen prentsan. Une horretan konturatu nintzen gertaera historiko bati (berezi zabalkunde hain handia izan duen bati) kulturalan eman zaion trataera aztertzea oso interesgarria eta polita izan zitekeela. Ezagutzen nuen gertaera historiko horren inguruko kanta bat, Picassoren koadroa eta estreinatu berri zen pelikula. Gehiago arakatzen hasita, eduki nahikoa izango nuela ikusi eta erabakia hartu nuen. Noski, tutorearekin komentatu nuen dena. Tutorea ardatz garrantzitsua izan da prozesu osoan zehar, eta berarekin partekatu ditut nire ideia eta aurkikuntza guztiak, bai eta bere gomendioak jaso eta aplikatu.

Gernika hiria 1937ko apirilaren 26an bonbardatua izan zen, Espainiako Gerra Zibilaren testuinguruan. Alemaniako Kondor Legioa izan zen erasoaren erantzule, Franco jeneralaren agindupean. Merkatu eguna zen eta herritarrak kalean zeuden, abereekin, gertatzeaz zegoenaz ezjakin. Arratsaldeko laurak laurden gutxiak jotzean, hegazkin alemaniarrek zerua estali zuten eta bonbak erortzen hasi ziren: lehenik eta behin, leherketa bonbak, suntsitzaileak eta hilgarriak, eta suzkoak ondoren, suteak eratzen zituztenak, itzaltzeko zailak.

Hildako kopurua ez dago argi oraindik ere, laurogei urte igarota. Hasiera batean, Eusko Jaurlaritzak 1.645 biktima aipatu zituen, baina urteekin ikerketa desberdinek frogatu dute hildakoak 200-300 inguru izan zirela.

Hildako kopuruak ez du, ordea, gertaera hau ikono bihurtu. Gernikako bonbardaketak euskal mugak gainditu zituen eta mundura hedatu zen, nahiz eta hildako kopurua beste bonbardaketa askotan baino txikiagoa izan. Baina bai gertakariaren krudeltasunagatik (zibilen aurkakoa izan zen) eta bai suntsiketa mailagatik, gertaeraren dimentsioa handia da. Bonbardaketaren ondoren Francoren gobernuak eraikitako bertsiio faltsuak ere garrantzi handiagoa eman zion. Gernika “gorri separatistek” erre zutela izan zen bertsiio ofiziala, eta hori hedatu zuten mundu mailako hainbat hedabidek. Eskerrak, ordea, zenbait kazetarik egia zabaldu zutela, ikusitakoa idatzi zutela. Horietan guztietan ezagunena, *The Times* eta *The New York Times* egunkarietako korrespontsala, George L. Steer.

Gainera, gertakariaren eraginak egunera arte dirau, gaurkotasuneko gaia da: prentsan gertakariarekin erlazionatutako albisteak ematen dira eta hura oroitu eta biktimak omentzeko kultur jarduerak egiten dira.

80. urteurren hau aukera ezin hobea deritzot gertaerak kulturalan izan duen eragina eta tokia aztertzeko, kultur gehigarri baten formatuan, formatu irakurterraza eta erakargarria. Hori izan dut, behintzat, helburu. Espero dut atzean hainbeste lan duen kazetaritza produktu honek islatzea gugandik hain hurbil izandako tragediak artean duen toki esanguratsua. Bitxia da zelan gerra gertaera gordin batek hain pieza kultural ederrak sor ditzakeen, zelan artea sor dezakeen.

GARAPENA

Gehigarriaren sortze prozesuan, sail bakoitzerako jorratuko gaiak zehaztea izan zen lehen erronka handia. Sailak argi banituen ere, bakoitzean zein eduki landuko nuen erabakitzea ez zen batere samurra izan; alde batetik, sail batzuetarako ideia bat baino gehiago nituen, eta bestetik, ideia falta beste batzuetarako. Horixe izan zen, beraz, eman beharreko lehen pausoa. *Brainstorming* metodoa izan zen nagusi hastapenetan, eta hortik ideiak sortzen joan ziren. Ordea, aurreikusitako gai batzuk eraldatzen joan ziren denborak aurrera egin ahala, bai buruan nituen iturriak lortu ezin izanagatik, bai informazio berria aurkitu eta erreportajearen txertatuko nuela erabaki nuelako. Hasierako ideia argia zen arren, sortze prozesuan aldaketak suertatu dira, azken produkturaino iritsi arte.

Oro har, erreportajeak dira nagusi gehigarri honetan. Albiste laburrik ez dagoenez, gehigarri honen xedea hori ez zelako, erreportajea da gaiak lantzeko generorik aproposena, hauetan sakontzeko aukera ematen duelako iturri anitz erabilita. Horrez gain, bi elkarrizketa eta kronika zein zinema kritika bana ere badaude.

Labur-labur azalduta, honakoa izan da sail bakoitzerako jarraitutako prozesua:

Artearen esparruan, hasieratik izan nuen argi Pablo Picassoren *Guernica* margolana aipatu beharra zegoela. Izan ere, Gernikako bonbardaketa artearekin harremanetan jartzen denean, Picassoren margolanarekin erlazionatzen da, garrantzia ukazina du obrak. Baina bestalde, banekien baita ere oso maiz jorratutako gaia izan dela, asko idatzi dela horri buruz eta jendea agian nekatuta egon zitekeela. Hortaz, gaiari beste ikuspuntu bat ematea erabaki nuen. Ismael Manterola irakaslearen elkarrizketa gainera, oso lagungarria izan zen, eta erreportajearen ildo nagusia bihurtzea erabaki nuen, azalduko nituen margolan guztien lotura. Hasieran ohiko erreportaje bat izango zenak, azkenean, argazki-erreportaje kutsua hartu zuen. Alde batetik, garrantzitsua iruditu zitzaidan aipatzen ari nintzen koadroen argazkiak txertatzea, irakurleak zertaz ari naizen ikusi eta margolanez goza dezan. Horrez gain, jada testu nahikoa zuen gehigarri bat erakargarriago bihurtzeko aukera paregabea zen, gehigarriari “airea” emateko modua.

Dantzaren erreportajerako, Elai-Alairen historia kontatzea ideia polita iruditu zitzaidan. Interneten aurkitu nuen taldea eta horren inguruko informazio pixka bat, datu batzuk, eta gehiago ikertzeak merezi zuela erabaki. Bi liburu eta hiru elkarrizketen emaitza da testu hori.

Literatur sailean, Bernardo Atxaga elkarrizketa egiteko prest egoteak gauzak asko erraztu zituen. Elkarrizketa eginda, haren aurretik erreportaje txiki baten beharra ikusi nuen, 1937ko bonbardaketak literaturan izan duen tokia aztertzen zuena, testuinguru bat ezartzen zuena. Iratxe Retolaza iturri ezin hobea izan zen horretarako, bai eta Karmelo Landa. Azken honek, egin nuen lehenetariko elkarrizketa izanda, gertakariaren inguruko datu ugari eman zizkidan. Historialaria eta Gernika Batzordeko kide izanik, gertakaria ongi ezagutzen du, eta ni oraindik gaiari hasi berria nintzela, bonbardaketa azaldu zidan hasieratik bukaerara arte, bi orduko elkarrizketa batean. Beraz, literatura erreportajerako iturri izateaz gain, oso lagungarria izan zait ere bonbardaketaren testuingurua eraikitzerako orduan.

Zinemaren saila izan da, zalantzarik gabe, buruhauste handienak eman dizkidana. Hasiera batean, 2016an estreinatutako *Gernika* filmaren zuzendariari, Koldo Serrari, elkarrizketa bat egitea pentsatu nuen. Ordea, guztiz ezinezkoa izan da. Bai bere ekoiztetxearen bitartez eta bai zuzenean (bere sare sozialen bitartez) berarekin harremanetan jartzen ahalegindu nintzen behin eta berriro, baina ez nuen inolako erantzunik jaso. Oztopo handi hura zela medio, buruan nuen egitura goitik behera aldatu behar izan nuen. Trabak gaindituta, esan beharra dago hiru iturri esanguratsu lortu nituela, beraz, Koldo Serraren elkarrizketa lortu ez izanak ez du zinemaren sailaren kalitatea kolokan jarri. Gaiaren inguruan egindako azken filma izanda, ordea, arreta berezia behar zuela pentsatu nuen, eta horregatik *Gernika* filmaren inguruko zinema kritika bat dago sail horretan bertan.

Musikaren arloan, Gernikaren inguruan kantu bat egin zuen taldeetako bat elkarrizketatzea zen, niretzat, interesgarriena, taldeak edo taldekideetako batek (kasu honetan) kontu zitzan kantua egitearen prozesua eta zergatia. Zenbait ezagunen laguntzarekin, Eñaut Elorrietaren posta elektronikoko helbidea lortu nuen eta berak elkarrizketa egiteari baietz erantzun zidan. Beraz, ez zen inolako arazorik egon sail honetan.

Antzerkiaren kasuan, bi urtean behin Gernikan kale-antzezlan bat egiten zutela irakurri nuen, bonbardaketaren antzezpena egiten zutela. Hori jakin bezain pronto, erreportajea ekitaldi horren ingurukoa izango zela erabaki nuen. Carlos Panera izan zen aipatu antzezlanaren sortzailea, lehenengo bi urteetan zuzendu zuena. Nik, egia esan, zuzendaria egun ere bera zela pentsatu nuen hasiera batean, baina berarekin mintzatu ondoren, eta egungo zuzendariak beste batzuk direla jakinda, aurtengo antolatzailearen batekin hitz egin behar nuela erabaki nuen, bai eta antzezleren batekin.

Gehigarri osoan zehar Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena aipatuta, urteurrenaren egunaren inguruko kronika baten beharra ezinbestekoa zen. Hortaz, 2017ko apirilaren 26a Gernikan igaro nuen 9:30tik, eta izandako ekitaldi guztien lekuko izan nintzen, bai kronika idazteko, bai kronika irudikatzen dituzten argazkiak egiteko.

Hori da, beraz, gehigarriak barne hartzen duen edukia. Esan beharrik ez dago, Gernikako bonbardaketaren inguruan kultura arloan egindako guztia ez dela aipatzen, kontu batzuk kanpo geratu dira. Izan ere, aukeraketa prozesua egin behar izan dut, iragazkia jarri interesgarriena zena hautatzeko. Honelako gehigarri labur batean, ezinezkoa izango litzateke kulturaren egindako guztia aipatzea: idatzitako liburu guztiak, egindako dokumentalak... Dena barneratzekotan, nahaste-borraste handia izango litzateke, toki txikian gauza gehiegi aipatuta eta gutxi azalduta. Horregatik, nire aukeraketetan fokotzea erabaki dut, eta horien inguruko testu zehatz, ulergarri eta interesgarriak egitea.

Gai guztien arteko lotura ezartzen saiatu naiz baita ere, gehigarriak osotasuna izan zedin, erreportaje isolatu kate bat ez izateko. Lan erraza izan da, egia esan, Gernikako bonbardaketak gai guztiak lotzen baititu zuzen-zuzenean.

Idazkera

Idazkerari dagokionez, euskara zuzen, zehatz eta ulerterraza erabiltzen saiatu naiz. Euskara batua erabili dut baita ere, erosoan erabiltzen dudana euskara delako, eta irakurleei begira, edonork ulertzeko modukoa izatea nahi izan dudalako.

Ortografia edo estilo inguruko zalantzak izatekotan, bi ardatz izan ditut: Elhuyar Hiztegia eta *Berria* kazetari estilo liburua. Euskara zuzenaren eredu ditut eta hauetan ebatzi ditut suertatutako zalantzak.

Diseinua

Proiektu hau edukian eta idazkeran oinarritzen bada ere, aurkezpena txukuna eta erakargarria izatea oso garrantzitsua da. Aldizkari eta gehigarriak begietatik sartzen dira, aurkezpena izango da norbaitek irakurtzeko gogoia izatearen edo ez izatearen erantzule. Hortaz, eta nahiz eta alde zehatzetik maketazioaren inguruko ezagutzarik ez izan, gehigarri formatuan egitea erabaki dut. Horretarako, Adobe InDesign programaz baliatu naiz.

Diseinua sinplea da, minimalista. Sail bakoitzak kolore identifikagarri bat du, eta zenbait elementutan irudikatzen da: goiko alboetako lerroetan, zatidurak inguratzen dituzten lerro bikoitzetan eta leihoak banatzen dituzten lerroetan ere. Testuei dagokienez, bi eta hiru zutabetan banatuta daude, era aleatorioan, monotonia apurtzeko. Salbuespen bakarra Musika saila da, Eñaut Elorrietaren elkarrizketa, hain zuzen ere. Tarte hori zutabe bakarrean utzi dut eskumako orrialdeko argazkia txertatzean hobe geratzen zelako.

Argazkiak: Argazkiei dagokienez, bai nik neuk ateratakoak eta bai Interneteko atari desberdinetatik hartuak dira, baina guztiek argazki oina dute, argazkiaren iturria aipatuz.

Azala: Hainbat elementu ageri dira hemen. Lehenengoa, gehigarriaren izenburua: “Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena. Zer eragin izan du kulturalan?”. Gehigarri honek ez du izenburu orokor baten beharrik (*XL Semanal* edo *Gazteberri*, adibidez). Izan ere, behin baino argitaratuko ez den produktua da, data jakin batean, gaurkotasuneko gai bati estu-estu lotuta dagoelarik. Horregatik, izenburua gehigarriak jorratuko duen gaia da. Data da bigarren elementua, kasu honetan, maiatzak 30, entregaren data.

Azalaren diseinua berritzailea da, ez oso ohikoa. Gernika errearen hondo baten gainean, gehigarriaren barruan azaltzen diren gai batzuen laburpen edo tituluak ageri dira, sailaren kolore identifikagarriaren lerro batez lagunduta, bai eta eduki hori agertzen diren orrialdeak zehaztuta ere (sailaren kolorearekin). Alboan, edukiarekin zerikusia duen irudi bat, zuri kolorekoa, Adobe Illustrator programarekin egina. Eskumako sua programa berarekin eginda dago, eta dekorazio elementu bat baino ez da.

Oztopo nagusiak

Kultur gehigarri baten sortze-prozesuan hainbat arazo sortzen dira. Oztoporik nagusiena, zalantzarik gabe, **informazio iturriekiko menpekotasuna** da. Eduki baten informazio iturri guztiak elkarrizketatu arte ezin da eduki hori idatzi, eta horrek zailtasun handiak eragiten ditu, denbora estutasuna bereziki. Izan ere, aurretik aipatu bezala, iturri batzuen ezetza edo erantzunik eza jaso izan dut, eta horrek edukiaren egitura aldatzera behartu nau. Era berean, eduki batzuk nahi izango nukeen baino beranduago idatzi behar izan ditut, esaterako, hiru iturrietatik batek erantzuten ez zidalako.

Iturrien oztopoa gaindituta, **informazioaren egituraketa** izan da ondorengo zailtasuna: nola ordenatuko dut dudak informazio guztia eta dauzkadan iturriak? Helburua, beti ere, testu

interesgarria sortzea izan da, hasieratik azken hitzera arte irakurlea gatiboturik mantentzen duena. Testuaren barne-koherentziaz gain, gehigarriaren osotasunaren zentzua mantentzeak ere berebiziko garrantzia du, edukien oreka mantentzea eta haien arteko lotura ezartzea.

Prozesuan aurre egin beharreko azken oztopoa emandako azken pausoa izan da: **maketazioa**. Aurretik adierazi legez, ez naiz diseinuan aditua, eta dudan jakintza mugatuarekin egin behar izan dut, horrelako egitasmo baten aurkezpenak duen garrantzia kontuan hartuz. Hortaz, gehigarria maketatzea erronka izan da.

ONDORIOAK

Sei hilabetean zehar landutako proiektu honek hainbat gauza irakatsi dizkit. Gehigarri bat bakarrik egiteak hainbat erabaki hartzera behartzen zaitu, eman beharreko pauso bakoitza erabaki bat da. Hauexek dira, hurrenez hurren, sortze-prozesutik ateratako ondorioak:

- Kazetaritzan, oro har, eta gehigarri baten sortze-prozesuan, zehatz-mehatz, kazetaria iturrien menpe dago. Iturriekin harreman zuzena izatea da kazetaritza polit egiten duena, eta pertsona desberdinen istorioak entzun ahal izatea da lanbide honetatik niri gehien gustatzen zaidana, pertsonalki. Baina egia da, era berean, menpekotasun hau arazo izan daitekeela denborak estutzen duenean. Erreportaje baterako gaia aukeratu bezain laster, hartarako erabili nahi diren iturriak pentsatu behar dira (berez, erabaki zaila). Hurrengo pausoa aukeratutakoen harreman-bideak lortzea da, haien e-posta, telefono zenbakia... Eta harremanetan jarri. Batzuek egun batzuetara erantzuten dute, eta eskertzekoa da, baina beste kasu batzuetan asteak aurrera doaz eta ez da erantzunik jasotzen. Hor dago beste traba bat: zenbat denbora emango diet erantzuteko? Zenbat denbora gehiago itxarongo dut iturri honetaz ahazteko eta beste batekin harremanetan jartzeko? Honen adibide argiena Koldo Serrarena da. Proiektuarekin hasi eta berehala jarri nintzen berarekin harremanetan, eta hilabete pare bat igaro arte, erantzungo zueneko itxaropena izaten jarraitzen nuen, azkenean burutik kendu eta erreportajeari buelta bat ematea erabaki nuen arte.
- Aurreko ondorioarekin estu-estu lotua, testu baterako erabili nahi diren iturriak aurreikustean bigarren aukera pentsatzearen beharra ikusi dut, “B plana” izatearen beharra. Iturri baten ezezkoak ez luke inoiz produktu informatibo baten kalitatea kolokan jarri beharko. Hori baztertuta, maila bereko beste aukera bat buruan izatea guztiz beharrezkoa da.
- Iturriak alde batera utzita, oro har gehigarri oso bat sortzeak atzean duen lana bizi izan dut nire larruan. Ez da aste batzuen buruan egiteko modukoa, edo ez behintzat pertsona bakar batek egiten duenean. Pauso ugari dituen prozesua da eta bakoitzak bere denbora hartzen du.
- Ezinbestekoa da planifikazio zehatz eta zurruna izatea. Epe luzerako proiektu hauetan, hilabeteetako lana denean, egutegia hartu eta proiektuan jarraitu beharreko pausoak finkatu behar dira. Hau da, zenbat aste erabiliko diren gehigarriaren gaia hautatzeko, zenbat balizko erreportajeak pentsatzeko, iturriak lortzeko eta testuak idazteko.

Azkenik, maketazioari ere zenbait aste eman behar zaizkio. Planifikaziorik gabe oso zaila da garaiz iristea kalitatezko produktu batekin.

- Dokumentazio lanaren garrantziaz ohartu naiz beste behin ere. Kazetaritza produktu guztietan dokumentazioa ezinbestekoa bada ere, are garrantzi handiagoa izan du honako kultur gehigarri honetan. Gernikako bonbardaketaren inguruko gehigarria da, eta nahiz eta gertakari historikoa bere osotasunean azaltzen ez den, niretzat ezinbestekoa izan da testuinguru historikoa menperatzea edukia ekoizteko, elkarrizketatu ororen galdetegiak prestatzeko eta Bernardo Atxagaren saiakera eta Elai-Alairen inguruko bi liburuak ondo ulertzeko. Gehigarrian ez da bonbardaketa azaldu ez delako gehigarri historikoa. Gainera, Gernikan bonbardaketa bat egon zela jakinda, edukia uler daiteke. Baina esan bezala, inoiz baino garrantzitsuagoa izan da niretzat gaia menperatzea.
- Gehigarri honetan hainbat kazetaritza genero uztartu dira, eta horrek aukera eman dit Kazetaritzako Graduan zehar eskuratutako gaitasun desberdinak praktikan jartzeko. Informazio, interpretazio eta iritzi generoak barne biltzen dituen produktu bat askoz aberatsagoa izango da genero bakarra hartzen duena baino.
- Laburtzen jakitearen garrantzia ere egiaztatu dut gehigarri hau taxutzean. Dokumentazio hain handia izanda, bai eta elkarrizketa luzeak, aukeraketa xehea egin beharra dago. Informazioaren zati bat kanpo uzteak pena ematen badu ere, gehigarrirako aukeratzen denarekin ideia garrantzitsu guztiak islatuta egon beharko lirateke.
- Euskarari dagokionez, bere erabilera zuzenaren garrantziaz jabetu naiz. Graduan zehar nire euskara maila era nabarmenean hobetu dut, eta gehigarri honetan ikasitakoa islatzen saiatu naiz. Izan ere, euskara arlo guztietako hizkuntza da, bai kaleko hizkuntza informala, bai kazetaritza serioaren hizkuntza ere.
- Bukatzeko, gehigarri bat eratzeak sortzen duen poztasuna bizi izan dut. Lan handia da, baina produktua esku artean izanda, egindako lana merezi izan duela sentitu dut. Horrek, bere apalean, harrotasun handia ematen du.

BIBLIOGRAFIA

Iturri pertsonalak

ATXAGA, BERNARDO, idazlea

ATXIKALLENDE, EGOITZ, Elai-Alaiko dantzari eta diruzaina

BARRENA, JOSUNE, *Gernika Garretan* kale-antzezlaneko aktorea

BILBAO, ASIER, *Gernika bajo las bombas* telesailaren ekoizpen-burua

ELORRIETA, EÑAUT, *Ken Zazpi* musika taldeko abeslari eta gitarrista

FERNANDEZ, JOXEAN, Euskadiko Filmategiko zuzendaria

LANDA, KARMELO, historialaria eta Gernika Batzordeko kidea

MANTEROLA, ISMAEL, *Artearen Historiako* irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean

METHILNG, ROLAND, Rostock hiri alemaniarreko alkatea

OLEA RETOLAZA, MARIAN, Gernikako biztanlea

OMAETXE BARRIA, MADDALEN, Elai-Alai taldeko dantzaria

PANERA, CARLOS, antzerki zuzendaria eta irakaslea Begoñako Andra Marin

RETOLAZA, IRATXE, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean irakaslea

UNZALU, TXOMIN, Elai-Alai dantza taldeko kide eta “Gernika-Lumoko Elai-Alai XX. mendean” liburuaren idazlea.

URRETABIZKAIA, ARANTXA, idazlea

SAIZ, CAMINO, *Gernika Garretan Kultur Elkarteko* presidentea

Iturri dokumentalak

LIBURUAK ETA AGIRIAK

Arana Martija, J.A. (1977). *Elai-Alai, Euskalherriko lehenengo koreografi taldea*. Gernika: Gernika Kultur Elkartea.

Atxaga, B. (2007). *Markak: Gernika 1937*. Nafarroa: Pamiela.

Atxaga, B. (2012). *Lectura frente al Guernica en el Museo Reina Sofía*.

Unzalu Arrospide, T. (2010). *Gernika-Lumoko Elai-Alai XX. mendean*. Gernika: Gernika-Lumoko Udala.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Marías, L. (2012). *Gernika bajo las bombas* [Telesaila]. Espainia: Baleuko, Erpin 360°, Vértice Cine.

Serra, K. (2016). *Gernika* [Pelikula]. Espainia: Pecado Films, Travis Producciones, Sayaka Producciones, Gernika The Movie.

Zorrilla, J.A. (1987). *Lauaxeta, A los cuatro vientos* [Pelikula]. Espainia: Igeldo Zine Produkzioak.

INTERNETEN

Egunkarietako artikulak:

A.I. (2014). *La representación de la obra 'Gernika Sutan' sobre el bombardeo será bianual*, El Correo, martxoak 26. Esteka:
<http://www.elcorreo.com/bizkaia/costa/201403/26/representacion-obra-gernika-sutan-20140326105118.html> [Kontsulta: 2017-04-02]

Anso, M. (2008). *En busca de una obra de José Luis Zumeta en paradero desconocido*, Gara, urtarrilak 9. Esteka:
<http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20080109/56743/es/En-busca-una-obra-Jose-Luis-Zumeta-paradero-desconocido> [Kontsulta: 2017-03-14]

EFE (2010). *El Museo Euskal Herria expone 'La Gernika de Jorge Oteiza'*, El Mundo, apirilak 26. Esteka:
<http://www.elmundo.es/elmundo/2010/04/26/paisvasco/1272280837.html> [Kontsulta: 2017-03-14]

EUROPA PRESS (2017). *Los premios Sabino Arana galardonan el “universo simbólico del ‘Guernica’*, Deia, urtarrilak 29. Esteka:

<http://www.deia.com/2017/01/29/sociedad/euskadi/los-premios-sabino-arana-galardonan-el-universo-simbolico-del-guernica-> [Kontsulta: 2017-03-14]

López, I. (2017). “*En su día el Guernica no gustó a casi nadie*”, Revista AD, apirilak 7. Esteka: <http://www.revistaad.es/arte/articulos/reina-sofia-piedad-y-terror-en-picasso-el-camino-a-guernica/18830> [Kontsulta: 2017-03-14]

Miguel Marcos, J. (2010). *El ‘otro Guernica’ decoraba un cine porno en Nueva York*, Público, urriak 27. Esteka: <http://www.publico.es/culturas/guernica-decoraba-cine-porno-nueva.html> [Kontsulta: 2017-03-14]

Seisdedos, A.M. (2015). *Tomás Hernández Mendizabal: “Sigo buscando el cuadro de Zumeta desaparecido hace cuarenta años”*, El Diario Vasco, uztailak 16. Esteka: <http://www.diariovasco.com/culturas/201507/16/sigo-buscando-cuadro-zumeta-201507160621.html> [Kontsulta: 2017-03-14]

Sinadurarik gabea (2012). *Bernardo Atxaga. Lectura poética ante el Guernica*, Madrid Free, urriak 25. Esteka: <http://madridfree.com/bernardo-atxaga-lectura-poetica-ante-el-guernica/> [Kontsulta: 2017-02-25]

Internetetik eskuratutako dokumentuak:

Fernandez, J. (2012). *Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian*. Esteka: http://www.filmotecavasca.com/media/uploads/actividades/programa_gerra_zibila.pdf

Olaziregi, M.J.; Otaegi, L. (2011). *La representación del bombardeo de Gernika en la literatura vasca*. Esteka: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/rievcuadernos/08/08040061.pdf>

Retolaza, I. (2008). *Rememorando el bombardeo de Gernika: lecturas, representaciones y miradas literarias*. Esteka: <http://congresoespanyola.fahce.unlp.edu.ar/i-congreso-2008/ponencias/RetolazaIratxe.pdf>

Webguneak:

Bernardo Atxagaren atari ofiziala: www.atxaga.eus/es

Dantzan.eus atarian, Txomin Unzaluren inguruko atala: <https://dantzan.eus/bideoak/txomin-unzalu>

Erre-Arteka-Maskaradaren webgunean, Carlos Paneraren biografiaren atala: http://www.erreprodukzioak.com/CARLOSPANERA_sp157.html Jose Luis

Gernikako Elai-Alairen Facebook sare sozialeko profila: <https://es-es.facebook.com/Elai-Alai-Gernika-490810377597885/>

Kultura Gernikan atarian, Gernika Batzordearen inguruko atala:
<http://www.kulturagernikan.net/pub/eu/gida/14/reg/>

Reina Sofia museoaren atari ofiziala:
<http://www.museoreinasofia.es/exposiciones/piedad-terror-picasso>

Zumetaren inguruko ataria: http://www.zumeta.es/zumeta.es/Bio_Cast.html

ERANSKINAK

Hemen atxikitzen dira elkarrizketarekin geratu aurretik atondutako galdetegiak, ordena alfabetikoan (abizenak kontuan izanda):

BERNARDO ATXAGA, Gasteizen

1. Milango museo batean ikusitako *Il masso di bormo* deituriko harriak bultzatu zintuen liburu hau idaztera, hein handi batean. Zer ikusi zenuen pieza horretan Gernikako bonbardaketak utzi dituen markei buruzko saiakera bat idazteko?
2. Saiakera honek dokumentazio lan handia du atzean, erreferentziaz josita dago. Nolakoa izan zen dokumentazio prozesua?
3. Zein izan zen liburuaren xedea idatzi zenuenean? Zer lortu nahi zenuen bere argitalpenarekin?
4. Gernikako bonbardaketari buruz gauza ugari egin dira, bai idatziz, bai artean, baita musikan ere... Zein da guda-gertaera horren berezitasuna?
5. Gertakari horren transzendentziak, gainera, egunera arte dirau. 80 urte pasata, zergatik dago gertaera bukatu ez izanaren sententzia?
6. (Aurrekoan aipatu ezean) Espainiako Gobernuaren erasoaren egile izatea oraindik aitortu ez izanak, zer eragin du bonbardaketaren atala ixteko prozesuan?
7. Zure liburuan gertaera frogatzen duten marka desberdinak biltzen dira: markak lurrean, Nevadako arboletan, idatzitako eskutitz eta olerkietan... Markak, hau da, frogak, ugariak eta sendoak ziren, batzuk bereziki (G. Steer-en kronika eta Picassoren *Guernica*). Zelan izan zen posible bonbardaketaren egileei buruzko neurri horretako gezurra eraikitzea?
8. Eusko Jaurlaritzak bonbardaketa eta hilabetera liburu bat argitaratu zuen, ingelesez, "gizateria zibilizatuarentzat". Bertan, bonbardaketaren egileak nortzuk izan ziren azaltzen zen, argazkiak eta frogak erakutsiz. Argitalpen ausarta izan zen arren, ez zuen oihartzun handirik izan. Uste duzu liburu hori argitaratzeak, gertaera mundu mailan argitu ordez, ondorio kaltegarriak izan zituela Jaurlaritzarentzat?
9. Zein zen zuretzat markarik indartsuena?
10. Zein izan da Picassoren koadroaren eragina?
11. Gernikako bonbardaketa gertaera historikotik harago doa. Ikono bihurtu da Euskal Herrian. Zer suposatzen du gertaera horrek euskal kulturarentzat?

EGOITZ ATXIKALLENDE, e-postaz (ahots kordetatik operatu berria zegoenez, aukera bakarra zen)

1. Zein da zure postua edo zeregina Elai-Alain?
2. Zein da taldearen organigrama edo antolakuntza eredua?
3. Nola heldu zinen hona?
4. Nola definituko zenuke gaur egungo Elai-Alai?
5. Zenbat jende dago taldearen barruan? Eta zenbat azpitalde?
6. Ordea, dantzari taldea baino gehiago da, historia handiko taldea da. Bonbardaketaren ostean, Frantziara erbesteratu behar izan zuen eta, han, arrakasta handia izan zuen. Gernikara itzultzean, ordea, frankismoaren sasoia zela eta, hainbat urteko “geldialdia” izan zuen, gero berriro birsortzeko. Historia presente dago taldearen baitan ala ahaztuta dago jada?
7. Zein funtzio betetzen du Elai-Alaik Gernikako herriarentzat? Zer eskaintzen dio?
8. Zer edo zer berezirik prestatzen ari zarete Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrenerako?

JOSUNE BARRENA, Gernikan

1. Antzezlanean parte hartzen duzun lehen urtea da?
2. Zergatik animatu zinen?
3. Zer suposatzen du zuretzat antzezlan honek?
4. Nolakoak dira entseguak? Azaldu ahalko zenidake entsegu egun bat?
5. Zein da zure papera aurtengo antzezlanean?
6. Zein toki du Gernikako bonbardaketak bertako biztanlerian?

ASIER BILBAO, Durangoko Baleukoren egoitzan

1. Nondik sortu zen *Gernika bajo las bombas* egitearen ideia?
2. Zergatik bi ataletako telesaila eta ez pelikula?
3. Zerk berezitasun du *Gernika bajo las bombas* telesaila bonbardaketaren inguruan egin diren beste ekoizpenetatik?
4. Nola erabaki zenuten zein pertsonaia bihurtuko zenituzten protagonista?
Lehendakaria, George Steer...
5. Ikus-entzunezkoari dagokionez, zer-nolako zailtasunak ditu gerra irudiak grabatzeak?

6. Uste duzu garrantzitsua dela guda gertaeren inguruko ikus-entzunezkoak egitea?
7. Honen aurretik, gudaren gaia jorratzen zuen pelikula bat ekoitzi zenuen?
8. Zein da esperientzia horretaz egiten duzun balorazioa?

EÑAUT ELORRIETA, Gernikan

1. Zergatik erabaki zenuten Joseba Sarrionandiaren poema, *Gernikan*, kanta bihurtzea?
2. Nortzuk dira abestian aipatzen direnak?
3. Zer transmititzen dizute izen horiek guztiek?
4. Abestian, biktimen izen-abizenen artean, *neskato erre bat, ume identifika ezina, gorputz zatiak, behi zatiak, agure baten gorputz errea...* tartekatzen dira, izenak baino are gogorragoak diren irudiak. Uste duzu jendea abestia entzun eta kantatzen duenean mezuaren larritasunaz ohartzen dela?
5. Gaur egun, oraindik, ez da biktima kopuru zehatza ezagutzen, ezin izan ziren zenbatu presa handiz hobi komunetan lurperatu zituztelako hildakoak, Santa Maria elizako artxiiboak erre zituztelako... Horrek are garrantzitsuago bihurtzen du biktimen izenak (batzuk behintzat) ematea?
6. Beste musikari batzuek ere Gernikako bonbardaketari buruzko kantak egin dituzte: Kortatu, Mikel Laboa, La Raiz... Zein izan da, zure ustez, gertaera historiko honen eragina euskal musikan?
7. Zein esango zenuke dela kulturaren zeregina edo betebeharra neurri honetako gertaera historikoen aurrean? Zer botere du kulturak?
8. Zelan bizi izan duzu zuk, gernikarra zaren aldetik, gertaera hau?
9. Nahiz eta 80 urte igaro diren, gaurkotasuneko gaia da egun ere, bai “Guernica Gernikara” mugimenduagatik, bai Espainiako Gobernuari egiletza aitortzeko eskaeragatik... Zein da bonbardaketaren gaiaren inguruan herrian arnasten den giroa?

JOXEAN FERNANDEZ, telefonoz

1. *Zinema eta Gerra Zibila Euskal Herrian* agiria argitaratu zenuen 2012an, Euskadiko Filmategiarekin. Oro har, zein da euskal zinemak Guda Zibilari eskaini dion arreta?
2. Eta, zehazki, nola definituko zenuke Gernikako bonbardaketari eman zaion trataera zineman?
3. Zein jo daiteke Gernikako bonbardaketaren inguruko lehen pelikulatzat?

4. Nemesio Sobrevilaren *Guernica* aipatzen duzue agirian, 1937koa. 22 minutu irauten ditu. Hortaz, zer da, dokumentala?
5. Eta, Fernando Arrabalaren *El árbol de Guernica* (1975) eta Pedro Lazagaren *El otro árbol de Guernica* (1969)?
6. Zure aburuz, *Lauaxeta. A los cuatro vientos* pelikulak ongi jasotzen du gertaera? Zein da zure iritzi duzu Zorrillaren pelikularen inguruan?
7. 2012an *Gernika bajo las bombas* bi ataletako telesaila kaleratu zuten Baleuko, Erpin 360 eta Vértice Cine ekoiztetxeek. Zer esan dezakezu ekoizpen horri buruz?
8. Gertaera historikoa behar bezala islatzen duela esan daiteke?
9. Eta iazko Koldo Serraren *Gernika*? Errealitatea zintzo islatzen du?
10. Zer iritzi duzu horren inguruan?
11. Gaia jorratu duen beste pelikularik bada?
12. Garrantzitsua da, zure ustez, zinemak gertaera historikoak lantzea?

KARMELO LANDA, Bilbon

1. Lehenik eta behin, eta testuinguruan sartzeko, zer da Gernika Batzordea eta zeintzuk dira bere helburuak? Nola sortu zen?
2. Zeintzuk dira batzordean jarraitzen dituzuen urratsak helburu horiek betetzeko?
3. Noiz eta nola sartu zinen zu? Zein rol jokatzen duzu?
4. Bonbardaketaren 80. urteurrena da 2017a, ekitaldi berezirik antolatuko duzue?
5. Zein iritzi duzu bonbardaketari buruz eta honek gaur egun duen garrantziaren inguruan?

ISMAEL MANTEROLA, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako Campusean

1. Zein izan zen Picassoren *Guernica* koadroaren eragina euskal kulturari?
2. Bere balio historikoa, ikonikoa, ukaezina da. Baina zein da bere balio artistikoa?
3. Zer eragin dute euskal pintoreek Gernikako bonbardaketaren auzian? Zer-nolako trataera eman diote gaiari?

MADDALEN OMAETXEBARRIA, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako Campusean

1. Ezagutzen zenuen Elai-Alairen historia (erbestaldia Frantzian, "geldialdia" eta birjaiotza...)?
2. Noiztik zaude taldearen barruan?

3. Zer da zuretzat Elai-Alairen parte izatea? Zer suposatzen du horrek?
4. Zer da taldetik gehien gustatzen zaizuna?
5. Eta gutxien?

CARLOS PANERA, Bilbon

1. Bi urtean behin bonbardaketaren egunean, kale-antzezlan bat egiten da Gernikan. Zenbatetan zuzendu duzu zuk obra hau eta nola heldu zinen horretara?
2. Bermeon, Lekeition edo Mungian antzeko kale-antzezlanak zuzendu dituzu. Zer da zuretzat herri oso batentzat hain esanahi berezia duen gertakari bat antzezlan bihurtzea?
3. Hitz egin dezagun Gernikakoaren inguruan: beti izaten dira eszena eta parte-hartzaile berberak?
4. Zelakoa da kaleko jendearekin lan egitea? Hau da, aktore ez diren pertsonak, haurrak, nagusiak...
5. Antzezlan herrikoi horretaz gain, zuk gai honen inguruko obrak zuzendu dituzu Maskarada konpainiarekin. Zer kontatzen dute obra hauek?
6. Nola definituko zenuke Gernikako bonbardaketak zure obran izan duen eragina?
7. Esango zenuke antzezlanaren bitartez mezu bat zuzenean heltzen zaiola publikoari? Hau da, zein da antzerkiaren boterea gai gordinak hedatzeko?

IRATXE RETOLAZA, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako Campusean

1. Zer-nolako eragina izan du Gernikako bonbardaketak euskal literaturan? Gehien markatu duen guda-gertaera izan da?
2. Eta euskal gizartea gehien markatu duena?
3. Bonbardaketari ematen dioten ikuspuntu edo enfokearen arabera sailkatu dituzu artikuluan gai hau jorratu duten literatura lanak: historiko-politikoa, antropologikoa, identitarioa, literarioa eta pertsonala. Interes berezia piztu dit antropologikoak: uste duzu Gernikako bonbardaketa gizateria osoari eragiten dion tragedia dela (*tropos universal*), tragedia lokala izatetik harago?
4. Ikuspuntu identitarioak, bere aldetik, euskal identitatearen aurkako erasotzat jotzen du bonbardaketa. Zein iritzi duzu zuk ikuspuntu honekiko?

5. Zure idatzian, bestalde, gertaerari buruzko interpretazio globalak eta lokalak desberdintzen dituzu. Zertan dira desberdin?
6. Artean Picassoren *Guernica* tragediaren ikono den bezala, literatura ikonorik al dago? Zein da?
7. Bernardo Atxagaren *Markak. Gernika 1937*. saiakera aipatzen da zure idatzian, beste batzuen artean, eta “gertaera historikoaren berrinterpretazio” bezala definitzen duzu. Garatu dezakezu kontzeptu hori?
8. Oro har, nola definituko zenuke bonbardaketari eman zaion literatur irakurketa?

TXOMIN UNZALU, Gernikan

1. Zergatik erabaki zenuen liburu hau idaztea? Historia kontatzeko beharra sentitu zenuen?
2. Dantza talde bezala, zer berezitasun du Elai-Alaik?
3. Dantza-talde soila baino gehiago dela uste duzu?
4. Gerra Zibilaren garaian arreta jarriz, zeregin berezia izan zuen taldeak: Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izan zen Frantzian eta haur ugariren “zaintzaile”. Ze hausnarketa egiten duzu garai horretaz?
5. Nolakoa izan da dokumentazio prozesua?
6. Zein izan da zure tokia Elai-Alain? Kontatuko zenidake izandako eboluzioa taldean sartu zinenetik gaur egunera arte?

ARANTXA URRETABIZKAIA, EiTBko Bilboko egoitzan

1. Nola iritsi zinen *Lauaxeta. A los cuatro vientos* (1987) pelikulara?
2. Zer iritzi duzu pelikularen inguruan?
3. Gernikako bonbardaketaren inguruko lehen pelikulatza jo daiteke?
4. Zer suposatu zuen zuretzat pelikula honen gidoigileetako bat izateak?
5. Zure senarra, Xabier Elorriaga, filmaren gidoigile eta protagonista izateak, hobetu zuten esperientzia?
6. Zer garrantzi du zuretzat Lauaxetaren figurak, pertsonaiak, Gernikako bonbardaketaren gertaera historikoan?
7. Noiz eta nola egin zenuen salto gidoigintzara?

8. Uste duzu zinemak botere berezia duela gertaera historikoak jendartera hedatzerako orduan?
9. Ikasketaz erizain, gidoigile, idazle, kazetari, aktore... Nola definituko zenuke zure burua?

CAMINO SAIZ, Gernikan

1. Nola heldu zinen “Gernika Garretan” antzezlanera, eta zein da zure zeregina bertan?
2. Behin baino gehiagotan egon zara antolatzaileen artean? Noiztik?
3. Zein da antzerkiaz arduratzen den erakunde edo elkarte?
4. Zer suposatzen du zuretzat horrelako ekimen batek?
5. Zelan doaz aurtengo antzezlanaren prestakuntzak?
6. Zelakoa izan da aurtengo parte-hartzea? Herritarrak prest daude antzezlanean parte hartzeko?
7. Zeintzuk dira zailtasunik handienak ekitaldia aurrera ateratzeko?